



Z A R A U T Z

Zarautz'ko Euskal giroaren sustrai batzuek

Errealitate bat da Euskal Herrian, euskal giroaren indarraldia. Zarautzen ere errealitate bat indarraldi hori, Herri bezela, gainera, gehien ta garbien erakusten duena dala esango nuke, bildurrikan gabe.

Gure lantxo hau barruti hontako talde batzuen berri emateko da. Ta bidezko danez, uraren on-baliotasuna kajitako oherena baita itur-burura joatea, hala egin ohi dugu guk ere: talde hauen buru, biotz ta arima dan Manolo Urbietaren genganajo-ko dugu.

Banan-banan bere egikizun batzuk ikus ta azter ditzagun.

—Zer dira «Naya»-oak?
—Hemengo «NAYA» dantza-toki-ko orkestra-gonak.
—Euskal lanik egin ohi duzue?
—Bai. Kanta batzuk euskeraz

abestuz gainera, umeen norgeiagokan ta beste euskal-jai asko ta as-koan orkestra hontaz baliatzen gera.

—Noiz sortu zan talde hau?
—1962'an.
—Nola?
—Taldea bezela ezagutera eman genuanean, ez giñan orkestarako. Kantoreak giñan, ez besterik. Bost gera asierakoak, ta hoietatik jarraitzen dugunak: Joan Mari Salegi, Pako Olazabal («Paxo», gureztat) ta irurok. Kantua utzirik, «NAYA»-kuok dantza-toki bat zabaldu genduan gero, 1963'an.

—Artean zer kantatzen zenuten?
—Euskal-kantak eta abesti internazionalak euskerara itzuliaz. Ta hain zuzen gure meritua hontatze dago: «SOROAK» taldearekin bate-

ra geu izan giñala euskeraz kantatzen asi giñan lehenengoak. Alde hontatik, zein neurritan ez dakigularik, euskal-kanta berri hauen giroaren sortzaille bezela ikusten dugu geure burua.

—Pozen naiz. Asiera interesgarria. Ta oraingo «OLESKARIAK» abestalde «NAYA» zaharraren jarraitzaile eman ote genezake?

—Ba, bai.
«OLESKARIAK» noiz sortu zan?
—1964'ean.
—Zertarako?
—Euskal Herriko zortzikotaren Txapelketara presentatzeko.
—Arrera ona?

—Beti izan dugu guk arrera abegitsua, asiera bertatik. Urte hartako norgeiagokan 4'gn, atera arren, entzuleentzako gogokoan zan zortzikote bezela presentatu ginduan antolatzaileak. Ta otsaillean presentatu giñalarik lehenengo aldiz, apirilera-ko «Columbia» disko-etxeak kontratu bat eskefiri zigan.

—Sarririk?
—Bai, batzuk. Garrantzietakoak: Euskal Herri osoko zortzikotaren lehenbiziko saria Mondragoen. Ta, oraindik asko-asko ez dala, Gazteiz irabazitako beste lehenengo saria, Arabako musikariaren musikelanak interpretatuz.


—Dakidenez, «OLESKARIAK» taldeak ere eboluzio bat izan du. Esai-guzuz nolako.

—Oraintsu arte, OLESKARIAK zortzikotea izan da. Orain 20 gera: Zarautzkoak: 15. Oriokoak: 4. Ta Getariako: 1. Baiña naizta geiagotu egin taldea, lehengo elburu ta lorkizun berdiñak ditugu, zortzikotearenak. Orain, hontara, indar ta kantu-ots gehiagoko eman diogula, bakarrik. Gazteizeko sari-irabaztea talde berri onekin izan dugu. Pozik gaude.

—Ta pozik egotekoa da, diot nezez. Ni musikoa ez naizenez, musika-gaile dan Felix Ibarondo'ren hitzak dakarzit kritika-gisa (ANAITASUNA 156'gn): «... OLESKARIAK abestaldearen kantakeran, matizazioa ikusi genduan, enpasteda, erritmua, afinazioa. Abestalde ona, akats batzuk izan arren ere. (...) Modu aparteko baten aipatu nahi dugu Pako Olazabak, baritonu solista, gutiz ondu interpretatu baitzuten bere kantuak, batez ere «canción ligera moderna» dalakoari dagozkie. Gaiza ta nortasuna dauka mutilak bere kantakeran. «OLESKARIAK» sekulako abestalde da.

—Diskorik?
—Bai. Bai «Columbia»-kin ta bai «Pax»-ekin.

—Ta, Manolo, talde hau eratzeko eragorpenik izan al duzu?
—Zarautzen, Gabon aurretik, egin dugun norgeiagoka baten irabazleak izaten dira gero herriz-herriz ibiltzen diran ume ta gazteko hoiek. Herri askotan ibilliak gera.



Zarautz'ko jaialdi bat. Jose Antonio Urbietakantatzen. Bere atzetik: B. Bergara ta Jose A. Azpeitia.

—Ez dut nekerik izan, zaletasun ikaragarria baidago Zarautz'en. Ta gero aurrera jarraitzea ere naiko errez egiten zaigu, talde bezela umore onekoak baigera. Ta umoreak beti lagundu ohi du. Nolakoak geran azaltzearren zera adieraziko nizuke: bein, beste zortzikote batzuekin norgeiagoka baten geundela, beste zortzikote ezagun bateko lagun bat han rebillen, kantatu aurretik kantore batek preparatu egin behar duela-ta, urarekin eztarria garbitzen; ta hira nun agertzen dan gure zortzikoteko bat puru eder bat agoan dakarrela ketan. Kasta hontakoak gera.

—Ondo da. Emaiguzu orain «ZARAUZKO GAZTETXOAK» taldearen berri. Nortzuk dira hauek?

—Zarautzen, Gabon aurretik, egin dugun norgeiagoka baten irabazleak izaten dira gero herriz-herriz ibiltzen diran ume ta gazteko hoiek. Herri askotan ibilliak gera.

—Zer-nolakoa da norgeiagoka hori?

—Urtero egin ohi dugu. Nahi duten umeak oro azaltzen dira hor. Batzuk kantatzen, beste batzuk ipuak kontatzen, beste batzuk olerkiak deklamatzeko, danetara. Euskeraz. Ta hortarako jarritako epailek batzuk aukeratzen dituzte hauek irabazleak. Oso interesgarria ozatzen da. «Zinema» peñoja-tokian ospatzen da.

—Noiz sortu zenduten txapelketa hori?

—Orain amar urte Euskeraren Eguna antolatatu zan Zarautzen. Ta urrungo urtean Lizardi zanari goratze bat egin zitzaion, omenaldi bezela. Ta ez dakit nola otu zitzaion konkuro hori, norgeiagoka hori, antolatzea.

—Zer asmorekin sortu zenduan?
—Eusker salbatu nahiez, orduko alegin desesperatu bat izan zan, gogoratzen naiz. Gaur giro ohea dago bazterretan.

—Ereintza honen fruturik ikusten al duzu?

—Giro bat sortu du, asmo batzuk asi ta azz-arazi ditu, ta ikastolak berak giro hontatik edoski du, sorreran ta gerora ere.

—Hau den hau antolatzeko bakarririk al zaude, Manolo?

—Ez, ez. Talde bat gera. «EUSKALTZALEAK» izenez. Esta talde hau normalki osatzen dugunok 7 gera: Basilio ergara (jaialdi guzieren presentzaille jatorra), Jose A. Azpeitia, Fernando Subifas, Pepita Olaskoaga, Gerbasio Gabilondo, Jesus Mari Ugarte, Manolo Urbietak.

—Agur, Manolo. Beste baterarte. Diotenez, txaloak baldin badira artixaren janaria, ondo jauda bizi dira Manolo ta bere mutilak. Eta merezi ere bai, gero!

JOAN MARI TORREALDAY

Muebles Arruti

MUEBLE BEARREAN ZELARA?

GAIÑ GAIÑEKOAK EGITEN DITU ETXE ONEK

Zona Industrial

Urrutizkiña 841.369

— Z A R A U T Z —

BAR ETA JANTOKIA

Otzarreta

ARRAMARRILLAN EGINDAKO TXULETAK EZIN OBEAK

ZAPALDA ZABALA KANPOAN

— Z A R A U T Z —

Z A R A U T Z - A
estortzen ba-zera, zoaz

Cafe de la Marina'ra

ONDARTZAN

IMPRENTA ELUSTONDO

TREBETASUN OSOA IMPRENTA LAN GUZITARAKO

Nuestra Señora de Aranzazu, 17

Urrutizkiña 841.921

— Z A R A U T Z —

Bar BIZKIYAK

MOKADUTAN ETA MOKA ONEAN APARTEKOA

TXAKOLIN ONENAK

Urrutizkiña 841.748

Z A R A U T Z

SASTRERIA

SOIÑEKOINTZA

F. Alberdi'ren Ondorengoak

San Franzisko, 5

Urrutizkiña 841.737

— Z A R A U T Z —

Bar TXOKO

EDARI AUKERA NAI DAN KLASETIK

Enparantza aurrean

Urrutizkiña: 841.729

Z A R A U T Z

Bar Zabalegi

OGI ARTEKORIK ONENAK

EMEN ARKITUKO

DITUZU

Mayor, 24

Urrutizkiña: 841.544

Z A R A U T Z

MODAK PUNTOZKO JANTZIAK BEZUA GAIK ERREGA-OTAKOAK

San Franzisko, 25
Urrutizkiña 841.209

GLORIA ETXEA

— Z A R A U T Z —

ARTZEKO LEKUA GASOLINA

GASOLINA - SUPERCARBURANTE - GAS-OIL - OLIOAK
KOIPETZE AZKARRA (ENGRASE A PRESION)

Avda. Generalísimo — San Pelayo — Urrut. 841.451 ta 841.147

— Z A R A U T Z (Gipuzkoa) —